

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ DURANGOKO AZOKA

Euskal kulturaren erakusleiho, Durango

Hernaniarrek ere badute bere txokoa Durangoko Azokan, eta igandera arte izango dira bertan.

ATZO ireki zituen atea Durangoko Azokak, igandera arte euskal kulturaren erakusleiho izateko. Eta aurten ere, hernaniarrik ez da falta!

Dobera Euskara Elkarteak, Goienkale 16an

Dobera Euskara Elkarteak, urtero bezala, stand propioa jarri du aurten ere. Goienkaleko 16 zenbakian dago kokatuta, eta bertan ari da elkar-tearen eta bazkideen hainbat lan saltzen. Tartean da, Ipuin Faktoriaren barruan Doberak argitaratu berri duen *Txori txikia eta kokodriloa*.

Musikan ere, berrikuntzak Hernaniar zati bat baduten bi taldek euren diska berriak aurkeztuko dituzte Durango: Esne Beltzak eta Huntzak. Xabi Solanoren taldeak *Ni zazpigarren diskoa* aur-

Ipuin berria eraman du Doberak Durangora: 'Txori txikia eta kokodriloa'.

keztu zuen azaroaren 29an; Uxue Amonarriz eta Aitor Huitziren Huntza taldeak, aldiz, *Xilema* kaleratu zuen herenegun. Biak erosi ahal izango dira bertan.

Beste hainbat ere bai

Baina ez dira bakarrak izango. Aztarna argitaletxeak ere izango du musika aukeran: batetik, Balen Lopez de Munain gitar-jole bilbotarraren lan berria aurkeztu dute, *25 pieza gitarrarako* izenburuarekin; baita Alboka taldearen *Lurra, ur, haize* lana ere. Hernani Errotzenek ere, bere txokoa dauka Nabarralderen standean. ■



Doberak Mariangeles Zugarramurdirekin partekatzen du 'stand'a.

■ ERRUGBIA

El Salvador liderraren kontra igandean, etxean

Partidu zaila izango dute hernaniarrek, arratsaldeko 16:00etatik aurrera etxean, Landaren.

ZAILA bada, ez da ezinezkoa dio abesti ezagun batek, eta halaxe laburbiltzen da igandean ohorezko errugbi taldeak jokatuko duen partidua. SilverStorm El Salvador liderra hartuko baitu Landaren, arratsaldeko 16:00etan hasita.

Bonusen bat egitea, helburu Lider mantentzea izango dute helburu Valladolidekoek, eta beraz, indartsu aterako dira, Landarera. Horren aurrean, zailtasunak izango dituzte

Abenduaren 15ean egingo dute Errege Koparen zozketa.

hernaniarrek irabazteko, eta bonusen bidez punturen bat lortzea izango dute helburu.

Izan ere, une honetan bolada txar batean murgilduta dago Hernani, eta puntuak behar ditu ahalik eta azkarren, sailkapeneko azken pos-

tuetatik aldentzeko.

Dena den, irabaztea ez da ezinezkoa eta hernaniarrek badakite. Duela urte batzuk garaitu zuen El Salvador, etxean. Eta denboraldi honetan dagoeneko erakutsi dute Landaren edozer gertatu daitekeela.

Hainbat baja, Hernanik Bolada txarrari jokalarien bajak ere gehitu behar zaizkie, oraindik ere jarraitzen dutenak; horiek ere eragina izaten

ari baitira. Horiek, batez ere, hiru laurdeneko lerroari eragiten diote: Garmendia anaiak, Puertas, Genua...

Koparen zozketa, 15ean

Denboraldi honetan Hernanik El Salvadorren kontra jokatuko duen aurreneko aldia da, baina agian ez da azkena izango. Bueltakoaz gain, Errege Kopan ere aurrez aurre topatu daitezkeelako. Abenduaren 15ean jakingo da hori, hurrengo fasearen zozketan. ■

■ AZOKA

Feria bihar, eta ez gaur

Jaieguna dela-eta, ostegunetako feria bihar izango dela jakinarazi dute, eta ez gaur. Ohiko ordutegian jarriko dituzte postuak Urbieta kalean, goiz eta arratsaldean. ■

■ UDALA

Konponketak gaur, Andre kalean

Andre kaleko lurzoruan konponketak egingo dituztela-eta, Plaza Berritik Atzieta kaleko irteera arteko bidea erabat moztuta egongo da gaur kotxeentzat. Oinezkoentzat, aldiz, irekita mantenduko da. Bihar goizean irekiko dute. ■

■ OPERA

Proiektzioa gaur, Biterin

La traviata opera proiektatuko dute gaur Biteriko areto nagusian. 19:30etan izango da, eta sarrerak aurretik erosi ahal izango dira, 8 euroren truke. ■

■ PORTU AUZOA

Egun osoko plana, auzotarrek

Legutio (Araba) bisitatuko dute gaur Portu auzoko biztanleek. Goizeko 09:30etan abiatuko dira, Ibarrolaburu plazatik. Aurrena, Ollerias museoa bisitatuko dute, eta ondoren, babarrun-jana izango dute. ■

■ GAZTELEKUA

Truke azoka, bihar

Truke azoka egingo dute bihar Gaztelekuan, 12 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara izango da, eta merienda egongo da. ■

■ BERTSOLARITZA

Xenpelar sariaren finala, Pagolak

Xenpelar Sariaren XXIV. edizio-ko finala jokatuko du igandean Eli Pagola hernaniarrek. Errenteria Hiria kulturgunean (Niesse) izango da, arratsaldeko 17:00etan. Sarrera: 5 euro. ■

AKELENEA
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua
Foie Micuit
Langostino entsalada
Onddo eta ahate ojaldrea
Arraia
Haragia
Postrea, ogia, kafea

Koldo eta Pina
25€ (BEZ barne, edaria aparte)
Enkarguz

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A

GAUR eguerdia
BIHAR eta ETZI
egun osoa
IREKITA

Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

☎ TAXIAK: 943 550093 | UDALTAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ☎ / Egunez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) 943 557738 / Gauzez: Castilla Urbietan, 7 (Hernani) 943 552941

EGURALDIA
GAUR Tarteka zerua lainotuta egongo da, eta baliteke euri pixka bat egitea. Haizea aldakorra izango da, eta ondorioz, tenperatura maximoak jaitsi egingo dira. **Min.10° / Max.15°**
BIHAR Nahiko eguzkitsua esnatuko da eguna, baina arratsaldeko lainoek zerua estalita utziko dute. Ondorioz, gauean euria egingo du. Tenperatura, aldaketarik ez. **Min.8° / Max.16°** (euskaime)

■ KONTRAKANTXA GAZTETXEA

'Iñoiz baño biziago' hamabi urte pasata ere!

Gaurtik hilaren 15era bitarte, hamabigarren urteurrena ospatuko du Kontrakantxa Gaztetxeak. Gaur izango du aurreneko saioa, solasaldia.

HAMABI urte bete ditu aurren Kontrakantxa Gaztetxeak, eta hori ospatzeko, egitarau berezia antolatu dute gaurtik hasita, *Iñoiz baño biziago* lelopean. Solasaldiarekin hasiko dute egitaraua gaur; *Harremanen inguruan hausnartzen* saioa izango da, Herri Eskolen barruan. Goizeko 10:00etan hasita izango da, gaztetxean.

Musika, bihar

Musikarekin emango diote hasiera asteburuari bihar gauean; Peputzen saioa izango da, gaueko 22:30etan hasita.

Hala ere, larunbatean goiz jeiki behar izango dute goizeko tailerrean parte hartu nahi

dutenek. Goizeko 10:00etan izango da, eta garagardoa egiten ikasiko dute, jakintzaren kolektibizatorako erabiliko duten saioan.

Hurrengo larunbatean, festa Hilaren 15ean, hurrengo larunbatean izango da festa handia. Goizeko 10:00etan auzolanean arituko dira; ondoren, 14:00etan bazkaria egingo dute, sobremesa girotuarekin; eta bukatzeko, gauzez, kilimak eta DJ PZ izango dira.

Bazkarira joan nahi dutenentzat, dagoeneko salgai daude txartelak, Goiz Argi eta Garin tabernetan. 15 euro izango dira, bazkaria eta kamixeta. ||

EGITARAUA

- GAUR, 10:00etan, Herri eskolak: harremanen inguruan hausnartzen.
- BIHAR, 22:30etan, Peputz.
- ETZI, 10:00etan, Garagardoa egiteko tailerra. Jakintzaren kolektibizazioa.
- Abenduak 12, 17:00etan, Herri eskolak: harremanen inguruan hausnartzen.
- Abenduak 13, 18:00etan, Hitzaldia + pintxo-potea (autogestioan sakontzen).
- Abenduak 14, 14:00etan, jantoki sozialaren irekiera, Langile Babes Sarearekin batera; 22:00, 'Berez sortzaileak ez garenon poesia errezitaldia'.
- Abenduak 15, 10:00etan, auzolana; 14:00etan, bazkaria eta sobremesa girotua; 23:00etan, kilimak, gero, DJ PZ.

■ OREKI FUNDAZIOA

'Herrigintza demokratikoa' hizpide hilaren 13an, Galarretako Oronan

Manuel Castells irakasleak inauguratuko du 'Herrigintza Demokratikoaz, Etorkizuna Eraikitzen' mintegia aurreko egunean. Donostian izango da hori, Foru Aldundiaren Jauregian, arratsaldeko 19:00etan hasita.

GIZARTEAK gobernu-erakundeekiko duen desafekzioa nabarmentzen dute Gipuzkoan egiten diren azterketa soziologiko gehienek; aldi berean, lurraldearen dinamikasuna ere azpimarratzen dute.

Bi horiek batu eta geroaz aritzeko, mintegia antolatu du Oreaki Fundazioak hilaren 13rako, hurrengo ostegunerako, *Herrigintza demokratikoaz, Etorkizuna Eraikitzen* izenburupean. Izan ere, antolatzaileak azaldu duenez, «gure herrigintzaren bi zutabe horiek (politikagintza eta gizartegintza) lankidetzara eragingarri jarzea litzateke etorkizuneko elkarbizitzarako dugun erronkari nagusia».

Galarretako Orona Ideo eraikinean izango da mintegia, goizeko 09:15etan hasi eta eguerdiko 14:00ak bitarte.

Manuel Castells, aurretik Mintegia ostegunean bada ere,

aurreko egunean, Manuel Castells irakasleak egingo du irekiera-hitzaldia: «demokrazia liberalaren krisia izango du hizpide. Mendebaldean nagusi den sistemaren legimitatea higatu duten prozesu globalen erroak azalduko ditu». Arratsaldeko 19:00etan hasita izango da, Donostiako Foru Aldundiaren egoitzan.

Goiz osoan zehar

Hurrengo egunean, «hausnarketaren haria globaltasunetik tokikotasunera ekarriko da, egungo euskal herrigintzak dituen erronkak eta garabideak aztertuko». Horretarako, politikagintzan eta gizarteko hainbat alorretan dabilzanek eskainiko dituzten hitzaldi eta mahai-inguruekin goiz osoko programa osatu dute.

Hizlarien artean izango dira Mondragon Unibertsitateko irakasle Andoni Eizagirre eta Jon Sarasua; Deustuko ira-



Manuel Castells hizlaria.

kasle Ion Muñoa; Tknikako Iñaki Mujika; Ubikareko Nerea Amenabar; Goierri Valleyko Jose Luis Perez; Xabier Barandiaran, Pello Otxandiano edota Mikel Diez-Sarasola.

Izenematea, derrigorrezkoa Parte-hartzea irekia da, baina plaza mugatuak direla eta, aurretik eman behar da izena: orekigintza@gmail.com edo 687 736 587. ||

■ FUTBOLA



Irunen jokatuko dute gaur, Ohorezko Erregionalek.

Partidu gehienak gaur, zubia dela-eta

Irungo Gal zelaian jokatuko dute Ohorezko Erregional mailako mutilek gaur, 15:30etan.

ZUBIA dela-eta, partidu gehienak gaur jokatuko direla jakinarazi du CD Hernanik. Talde nagusien artean, denak jokatuko dituzte gaur, Emakumezkoen Euskal Ligako partiduak izan ezik.

Ohorezko Erregionalen taldea, Irunen

Irunen jokatuko dute, hasteko, Ohorezko Mailako gizonen artean, Real Unionen aurka. Gal zelaian izango da norgehiagoka gaur, arratsaldeko 15:30etan hasita.

Zubipen jokatuko dute,

ordu berean, Lurralde Mailako emakumezkoek, Euskal Ligako emakumezkoen kontra. Eta ondoren, Zubipen izango dira Nazional Jubenileko mutilen partidua, arratsaldeko 17:30etan, Realaren kontra; eta Preferenteena, Trintxerperen aurka, iluntzeko 19:30etan hasita.

Euskal Ligakoa, larunbatean Larunbaterako utzi dute, ordea, Euskal Ligako emakumezkoen partidua. Goierri izango dute aurrez aurre, arratsaldeko 17:00etan hasita, Beasaingo Loinaz zelaian. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **MAÑOLI LOYARTE ZUBIRI**
(Elias Miguel Etxegiaren alarguna)
Herenegun hil zen, 86 urte zituela
- Goian Bego -

Haren animaren zuzendaria: Esteban Irurtzun; seme-alabak: Maria Carmen eta Joxe Angel, Xabier, Axun eta Navarro (†), Mikel eta Nerea, Txema eta Gemma, Maite eta Paco, Pabxo eta Bea, Iñaxi eta Zipriano; bilobak, birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzetzela **GAUR, OTEGUNA**, arratsaldeko **BOSTETAN, Goizuetako AMA BIRJIN JASOKUNDEAREN** parroki elizan gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Goizuetan, 2018ko abenduaren 6an

Helbidea: Aldapabko etxea
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN dago.

IRAGARKI MERKEAK

Emakumea lan bila, garbiketari, helduak zaintzen... Deitu: 609 209 161

Emakume arduratsuak helduak zaintzen edota garbitasunean lan egingo luke (etxeak, ofizinak...) Deitu: 654 122 548

LOGIKALINE enpresak BOST TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu. Lana Hernanin egiteko da. Kontrata: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. Bidali c.v. rrhh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06

Zerbitzaria behar da esperientziarekin asteburuetarako. Deitu: 679 476 992 (astelehenerdik ostiralera, 15:00etatik 17:00etara)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)